

Informazio orri honen bidez zuen interesekoak izan daitezkeen hainbat berri eman nahi dizkizuegu. Gogoratu nahi dizuegu, halaber, gai hauei edo beste edozeini buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Federazioarekin harremanetan jar zaitezketela, horretarako eskaintzen ditugun bide hauetako edozein erabilita: aurrez aurreko arreta, Federazioaren bulegoan, 9:30etik 17:30era, astelehenetik ostiralera; telefono bidezko arreta (tel. zk.: 943 32 72 08 / fax zk.: 943 27 49 77); edo posta elektronikoa, baikara@baikara.org helbidera idatzita.

1.- ESKOLA MAPA

Otsailaren 13an, Hezkuntza Saileko arduradunek eskola mapa berriaren prestakuntzarekin zerikusia duten hainbat informazio eman zizkieten Federazioaren Zuzendaritza Batzordeko kideei. Berri horien artean, bereziki aipatzekoa iruditu zaigu eskola mapa prestatzeko irizpideen proposamena eta mapa lantzeko eta ezartzeko aurreikusitako egutegia.

Irizpideen edukia, eta eskola mapari buruzko beste hainbat dokumentu, Federazioaren web orrian kontsulta daitezke (www.baikara.org). Aurreikusi duten egutegiari dagokionez, epe hauek proposatu dituzte: irizpideen dekretua prestatzea (apirila); eskola barruti bakoitzerako eskola maparen proposamena aurkeztea (abendua); eskola mapa berriari buruzko iritziak entzutea, aztertzea eta gauzatzea (2009ko urtarriletik aurrera, hiru urtez, estimazioen arabera).

Gai honi dagokionez, gure kezka nagusia, eta gogoratu nahi dizuegu euskal eskola publikoaren etorkizuneko garapenerako funtsezkoa dela, hauxe da: IGEen bidez gurasoek behar adinako informazioa jasotzea eta eskola mapa berria prestatzeko eta ezartzeko prozesuan era aktiboan parte hartu ahal izatea.

2.- TESTU LIBURUAK

2008-09 ikasturtetik aurrera, testu liburuen mailegurako sistema ezarriko da Lehen Hezkuntza guztian. Hurrengo ikasturtean (2009-10), berriz, DBH guztira zabalduko da sistema hori.

Sistema ezartzeari loturiko alderdiei eta balizko zailtasunei buruz eztabaida egitearren, batzorde bat eratu da, federazioen ordezkarien (BAIKARAKO ordezkariak tartean direla), ikastetxeetako zuzendaritzen eta Hezkuntza Sailaren artean. Hori dela-eta, gai honi buruzko zalantzarik duten IGEek Federazioa bidal ditzakete beren kezkek.

Nabarmentzekoa da ikastetxe bakoitzak bere batzordea eratu beharko duela, eta batzorde horretan gurasoen ordezkariak parte hartu behar dutela; batzordeen helburua ikastetxean ezarriko diren arauak onartzea da, baita arau horiek ezartzea eta horiei jarraipena egitea ere.

Federazioaren web orrian (www.baikara.org) kontsulta daiteke testu liburuen mailegurako programa hau arautzen duen Hezkuntza Sailaren agindua.

3.- IKASLEEN ESKUBIDEEN ETA BETEBEHARREN GAINKO DEKRETU BERRIA

Aurreikuspenen arabera, laster onartuko dute ikastetxeetako bizikidetzara arautuko duen dekretu berria; dekretu horretan, ikasleen eskubideak eta betebeharrak zehaztuko dira, nagusiki.

Aipatzekoa da aurreko dekretua 1994. urtekoa dela, eta hezkuntza komunitateak aho batez eskatu zuela dekretu hori berritzea eta ikastetxeen gaur egungo egoerari egokitzea.

Oraindik behin betikoa ez den arren, gure ustez azken dekretua ez da izango zirriborroaren oso bestelakoa; zirriborroa Euskadiko Eskola Kontseiluari bidali zaio, dagoeneko, irizpena eman dezan.

Federazioaren web orrian (www.baikara.org) kontsulta daiteke dekretu berriaren zirriborroaren testua.

4.- IKASLEAK ONARTZEA / MATRIKULAZIO KANPAINA

Hezkuntza Sailak ikasleak onartzeko arauak biltzen dituen dekretu berria onartu du. Dekretu berri hori hurrengo matrikulazio kanpainan erabiliko da, lehen aldiz, apirilaren hasieran. Dekretu berriaren ondorioz, aldatu egingo dira orain arte ikasleak onartzeko prozesuan erabiltzen ziren arau batzuk, bereziki ikastetxean behar adina ikaslerentzako tokirik ez dagoenean baremoa ezarri behar izanez gero orain artean aplikatzen ziren puntuazioei dagokienez. Baremoa ezartzeko, hainbat alderdi kontuan hartuko dira, adibidez: bizitokiaren hurbiltasuna, ikastetxe berean ikasle edo langile gisa diharduten senitartekoak edukitzea, familia unitatearen urteko errenta, etab.

Federazioaren web orrian (www.baikara.org) kontsulta daitezke ikasleak onartzeko dekretu berria eta onarpena arautzen duen agindua.

Matrikulazio kanpainaren datai dagokienez, azkenean, martxoaren 31tik apirilaren 11ra bitartean egingo da kanpaina. Aipatzekoa da, halaber, aurreko urteetan bezala, Federazioak 60 euroko diru laguntza emango diela tokian tokiko hedabideetan propaganda egin nahi duten ikastetxeei, eta 30 euroko diru laguntza, propaganda elkarrekin egitea erabakitzen duten ikastetxeei.

Kanpainari buruzko xehetasun gehiago nahi dituzten ikastetxe edo IGEek Federazioarekin harremanetan jartzeko aukera dute.

5.- ESKOLA PUBLIKOAREN 17. JAIA

Aurten, ekainaren lehen egina da jaia, Barakaldon, eta "EKIOZU EUSKAL ESKOLA PUBLIKOARI" izango da goiburua. Esaldi horren bidez, familiek eta eskolak gaur egungo gizartean, gizarte konplexu eta aldakor honetan, duten egitekoa nabarmendu nahi da.

Orain egun batzuk, jaia iragartzeko kartel batzuk bidali genituen ikastetxeetara. Jaia dela-eta salgai jarriko den arroparen erakusgarriak ere bidali zaizkie hala eskatu zuten IGEei. Federazioaren web orrian (www.baikara.org) ikus daiteke arropa.

Jaiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazue www.chige-jaia.org web orrira.

6.- IGEen ESTATUTUAK EGUNERATZEA

Abenduan IGEei jakinarazi zitzaenez, kanpaina bat egingo dugu elkarteen estatutuak eguneratzeko eta Euskadiko Elkarteen Lege berriak dioenari egokitzeko. Urtarrilean eta otsailean, berrogeita hamar bat estatutu jaso ditugu Federazioan, IGEek beraiek hona bidalita; bazkide diren IGEen herenak baino gehiagok bidali ditu, beraz, bere estatutuak. Datozen asteetan IGE horiekin harremanetan jarriko gara, bakoitzaren estatuetan egin beharreko aldaketen eta estatutuak eguneratzeko egin beharreko izapideen berri emateko.

Oraindik estatutuak Federaziora bidali ez dituzten IGEei dagokienez, nabarmendu nahi dugu kanpaina 2008 guztian egongo dela martxan, baina ez dela komeni asko luzatzea, eta estatutuak lehenbailehen bidaltzea dela egokiena, ez ahazteko. IGEren batek bere estatutuen alerik ez badu, Federazioarekin harremanetan jar dadila, Elkarteen Erregistrora ale bat eska dezagun.

7.- ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BILERA

Martxoaren 13an, ostegunean, 18.30ean, Zuzendaritza Batzordeak bilera egingo du Federazioaren egoitzan (Basotxiki kalea, 36, Intxaurren-Donostia). Bilera horretan, informazio orri honetan aipatutako gaiak sakontzeaz gainera, intereseko beste gai batzuk ere aztertuko dira. Gogorarazi nahi dizuegu Batzordearen bileretan IGEen edozein ordezkari parte har dezakeela.

OHARRA: Federazioaren web orrian eskuragarri dauden informazioetarako sarbidea erraztearren, hasierako orrian (Berriak-Albisteak atalean) sarbide zuzen bat aktibatuko da, informazio orri honetan aipatzen diren dokumentuetara zuzenean sartu ahal izateko.